

ERRAIAK ELEBERRIAREN SEN

APURTZAILEA

GENERO IKUSPEGIA ETA TEKNIKA NARRATIBOAK
AINTZAT HARTUTA

IKASLEA: Estibaliz Folgoso Barrenechea

TUTOREA: Maria Lourdes Otaegi

GRADUA: Euskal Ikasketak, Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza

IKASTURTEA: 2015-2016

Laburpena

Emakume idazle gazteen belaunaldiaren etorrera indartsua XXI. mendeko euskal literaturaren gertakari agerikoa da. 2000-2012 urteen artean plazaratutako emakume idazleez belaunaldi berriaren ezaugarriez eztabaidatu da sarri Erasmus belaunaldiaren izenez. Orain ordea, belaunaldi berri honen azken urte hauetako ezaugarri apurtzaileak azpimarratzen dira.

Ildo horretan, euskal literaturaren gaur egungo joerak aztergai hartuta, *Erraiak* eleberria baino gaurkotasun handiagoko eleberririk aurkitzea zaila izango litzatekeela ikusi genuen. Horregatik, sen apurtzailea duen nobela ba ote den ikusteko, lanaren azterketa egitea pentsatu genuen.

Azterketa honen bidez, lanaren amaieran eleberraren sen apurtzailea berritasun formal zein tematikoetan oinarritzen dela ikusi ahal izan dugu eta horiek sakonki aztertu ditugu.

Horretarako, eleberririk irakurleen artean eta kritikariengan izan duen harrera aztertu dugu, lanaren arrakasta islatzeko asmoz. Gero, eleberria oinarritzat hartuta, instantzia narratiboen azterketa bat egin dugu, eta horren ondoren, berritasun postmodernoak ikertzen saiatu gara zenbait alor kontutan hartuz: batetik, alderdi formalari dagozkionak (oin-oharren erabilera metaliterarioa eta diskurtsoaren berezitasuna eta sorkuntza lexikoa) eta bestetik, alderdi tematikoa (gorputzaren eta botere-harremanen hausnarketa). Azkenik, azterketa horretatik eratorritako ondorioak aurkeztu dira.

Lan honetatik zenbait emaitza bildu ahal izan ditugu: batetik, berritasun formaletan haustura handia ekarri duen eleberria dela, oin-oharren erabilera metaliterario hau ageri duen eleberri bakarra delako orain arte gure tradizioan. Izan ere, oin-oharrak bestelako lanetan ageri diren arren, hemen diskurtso narratiboarekin batera garatzen dira, eta beste lan batzuetan ez. Bestalde, diskurtso askatua eta sorkuntza linguistikoa ere berritasunak direla ikusi dugu, baina hedatzen ari den joera bat ere badela ematen du, badaudelako azken urteotan beste obra batzuk ere ezaugarri hauek dituztenak.

Horretaz gain, ikusi dugu haustura bat markatzen duela botere-harremanen trataeran. Izan ere, gordinki kritikatzeko dituen harreman heterosexual monogamo tradizionalak eta inork baino gordinago aldarrikatzen duen harreman sexualak askatasunez gozatzeko beharra. Hala ere, pertsonak gizartean onartuak izateko irrikaz bizi direla ere islatzen du

bere lanean, gizarte-harreman tradizionalari kritika egin arren, “normala” eta onartua izateko nahia duen protagonista bat aurkezten digulako, mundu afektibo pobrea duena eta, azkenerako, bakardadean bizi dena.

Bestetik, tradizionalari “emakumezkoek idatzitako literatura” bezala ezaguna den horrek jarraitu ohi dituen ildoak aintzat hartuta, oro har horiei jarraitzen diela ikusi dugu, zenbait berezitasun dituen arren.

Amaitzeko, aipatzekoa iruditzen zaigu lan honen azterketa sakonik egin ez izana orain arte, eleberraren oihartzuna hain handia izanda. Horregatik, espero dugu honako hau etorkizuneko azterketa sakonago baterako lehenengo pausoa izatea.

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	5
II. DANELE SARRIUGARTE.....	5
III. METODOLOGIA.....	6
IV. MAILA PRAGMATIKOA.....	7
V. AZTERKETA NARRATOLOGIKOA	8
1. Istorioa	8
2. Gaia.....	8
3. Denbora.....	8
4. Espazioa	9
5. Pertsonaiak.....	12
6. Narrazioa eta narratzailea	16
VI. LITERATURA POSTMODERNOAREN ZANTZUAK LIBURUAN.....	17
1. Berritasun formalak	17
2. Berritasun tematikoak	22
VII. ONDORIOAK.....	27
VIII. BIBLIOGRAFIA	28

I. SARRERA

Gorputzak eta generoak literaturaren barnean duten lekuaren azterketa gaurkotasun handiko gaia denez, lan honetan zehar, Danele Sarriugarteren *Erraiak* eleberrian gorputzak eta generoak leku garrantzitsu bat betetzen dutela defendatzen saiatuko gara eta horretaz gain, alor askotan euskal literaturaren tradizioarekiko ikuspegi aldaketa bat suposatu duela.

Horretarako, lehenik eta behin erabilitako metodologia zein izan den azalduko dugu. Ondoren, maila pragmatikoari begiratu bat emango diogu, obra honen aukeraketa bere arrakastaren bidez justifikatzeko asmoz. Gero, eleberriaren azterketa narratologikoa egingo dugu. Horren ostean, eleberriko berritasun postmodernoa aztertuko ditugu: batetik, formalak (oin-oharren erabilera metaliterarioa eta diskurtsoaren berezitasuna eta sorkuntza lexikoa) eta, bestetik, tematikoak (gorputzaren eta botere harremanen hausnarketa). Amaitzeko, ondorio zenbait aterako ditugu interpretazio bat egiteko asmoz.

Lan hau egin ahal izateko ahalik eta bibliografiarik zabalena erabili da: *Erraiak* lanaren inguruan aurkitu dena, lanean eragina izan duen Wallace-en ingurukoa eta euskal literaturan gorputzak eta generoak hartu duten tratamenduaren ingurukoa. Oro har, emakumezkoek euskal literaturan izan duten irudiari erreparatu diogu bibliografia honetan, emakumezkoek sortutako literaturarekiko konparaketa egiteko asmoz eta lanaren sen apurtzailea defendatzeko.

Azkenik, gure lanaren helburu nagusia eleberri honen sen apurtzailea zertan datzan aztertzea izan da eta horretarako alderdi formalari zein tematikoari erreparatu diogu, bi alderdi horietako berritasunak zeintzuk izan diren ikertuz.

II. DANELE SARRIUGARTE

Sarriugartek 2014. urtean argitaratu zuen nobela hau, oraingoz idatzi duen bakarra. 1989an jaio zen eta UPV/EHU Un Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatu zen, ondoren UEUn Euskal Herriko pentsamendu kritikoa buruzko gradu-ondoa egiteko. Egun, Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatuko masterra egiten dabil Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Gainera, Alemania eta AEBetako unibertsitateetan ere ibilia da.

Erraiak eleberri honekin Igartza Saria irabazi zuen 2012an eta 2014an argitaratu zuen Elkar argitaletxean. Horretaz gain, ipuin bat ere argitaratu zuen *Esku hori!* Bilduman (2012) eta maiz prentsan ere idazten du.

III. METODOLOGIA

Lan honen azterketa egiterako orduan, metodologia semiotikoa erabili dugu, hau da, zeinu literarioen azterketa eta horien interpretaziorako baliagarria izan zaigun metodologia bat. Hori izan baita, azken finen, gure helburu nagusia: eleberrian zehar aurkitutako elementuen balio sinbolikoa aztertzea eta interpretazio orokor bat egitea. Horretarako, azterketa pragmatiko eta testuala egiteaz gain, narratologiaren azterbideak ere ikertu ditugu, interpretazio bat lortzeko asmoz.

1. Corpusaren justifikazioa

Gure ustez, nobela honek haustura bat suposatu du euskal literaturaren baitan aurkitzen ditugun “emakumezkoen” eleberriekiko eta horrek aztergai ezin hobe bihurtzen duela uste dugu. Izan ere, emakumezkoek idatzitako lanetan genero intimista izaten da landuena eta emakumezko protagonisten inguruan garatutako nobelak nagusi izaten dira. *Modus* autobiografikoa izan da emakumeen artean landuenetakoa Gema Lasarteren hitzetan: “emakume idazleek beren nortasuna aurkitzeko bidaia pertsonalari ekin diote (...) *modus* autobiografikoek izugarritzko garrantzia izango dute” (2012: 28). Hori bera azpimarratu zuen Mari Jose Olaziregik hamarkada bat lehenago:

“Emakumezkoek idatzitako kontakizun askotan bezala, genero autobiografikoa bihurtzen da protagonistaren ezinegona testuratzeko forma narratiboa. (...) nobelagintza modernoak subjektuaren izakera finkatzen duten ezaugarrietan sakondu nahi du eta hortik, genero autobiografikoarekiko zaletasuna. “Nor naiz?” edo “Zer egiten dut mundu honetan?” bezalako galderei emandako erantzun literarioa, emakumezkoen nobelagintzaren ezaugarri bihurtu da XX. mendean. Urteetan ahaztuak, berezkoak zaizkien bizipenetan sakondu nahiko dute idazleok eta horretarako, lehenengo pertsonan idatzitako testuak edo genero autobiografikoaren aldakiak (memoriak, egunkariak, gutunak...) hobetsiko dituzte.” (1999: 60)

Horretaz gain, euskal literaturako emakume idazleek gai zehatz batzuei ere heldu dietela defendatzen du Lasartek:

“emakumeek landutako gai nagusiak hauek dira: identitatearen bilaketa oroimenaren bidez: inguru familiarra; niaren eta errealitatearen arteko zatiketa; orainaren arbuioa eta etorkizunerako ezintasuna; barne eta kanpo espazioa; maitasunaren ideia erromantikoa; erotismoa eta homosexualitatea (debekua); aisialdia eta lan mundua, eta kanpoko munduari emaniko begiratu femeninoa” (47-48).

Aztergai dugun eleberria, emakume batek idatzitakoa izanik, ezaugarri horiek ditu eta gai horiek lantzen ditu, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Nobela intimista da, emakumezko protagonista baten barne-munduan murgiltzen dena eta botere-harremanak hizpide nagusi dituena. Baina, aldi berean, oso eleberri apurtzailea da bere aurrekarietara, landutako gaien inguruan euskal literaturan inoiz ikusi gabeko gordintasun eta bortizkeriarekin jarduten delako eta, aldi berean, genero intimista honetan nagusi izaten diren bestelako ezaugarriekin ere apurtzen duelako.

Hori egiaztatzeko nobelaren zenbait alderdi aztertuko dira eta horrela eleberriaren sen apurtzaile hori defendatzen saiatuko gara. Izan ere, lan hau aukeratzeko arrazoia hori izan da: emakumezkoek idatzitako euskal eleberrietan ageri diren ezaugarri “tradizionalak” batzuekin haustea. Bestalde, lanaren egituraren literatura postmodernistaren ekarpenak ere berritzaile suertatu dira euskal literaturan, hori ere kontutan hartu delarik.

IV. MAILA PRAGMATIKOA

Argitaratu zen garaian aztoramendu eta zeresan handia sortu zuen liburua da *Erraiak*, salmenta eta kritika-erreportaje-elkarrizketa kopuruek salatzen dutenaren arabera.

Guztira, bere argitalpen datatik (2014ko otsailetik) orain arte ia 2900 ale saldu dira eta Galarragaren hitzetan (Altonaga et al., 2015: 57), urte erdi batean bigarren edizioa kaleratu zen. 2015eko maiatzerako, ordea, laugarren edizioa ere kaleratua zen eta urte horretan bertan Zilarrezko Euskadi Saria ere irabazi zuen. Beraz, datu hauek argi erakusten dute irakurle ugari izan dituela.

Kritikei dagokienez, hamahiru bat kritika jaso zituen denbora-tarte bertsuan Kritiken Hemerrotekaren arabera, egunkari, aldizkari zein sareko komunikabide desberdinetan (*El Correo*, *Berria*, *Gara*, *Argia*...). Kritika horietan, batez ere eleberriaren gordintasuna azpimarratzen da (kritika guztietan aipatzen den ezaugarria da, zuzenean edo zeharka), baina baita egilearen hizkera berritzailea edo oin-oharren bidezko egitura ere. Gainera,

landutako gaietan botere-harremani emandako trataera ere oso presente izan dute kritikariek, eta egungo gizarteko harremanak eta genero-rol tradizionalak zalantzan jartzeko gaitasuna azpimarratu diote idazleari. Josebe Egiak, esaterako, “inolako konbentzio sozial edo lotsak mugatu gabeko kontakizun gordina dela” (2014) esan zuen lan honi buruz eta Lander Arretxeak, aldiz, zera azpimarratu zuen: “Protagonistak sexuaz, botere-harremanez eta jokabide bakoitzaren atzeko zergati ezkutuez egindako gogoetak ziztagarri dira, eta aldi berean iradokitzaile” (2014: 25).

Beraz, interes handia piztu du obra honek, batez ere gaien tratamendu gordinaren aldetik. Liburu honen garrantzi literarioa handia dela uste dugu eta horregatik ekarri dituen berritasunak aztertzea erabaki dugu.

V. AZTERKETA NARRATOLOGIKOA

1. Istorioa

Asteburua kanpoan igaro ostean etxera bueltatu eta bere bikoteak alde egin duela deskubritzen du protagonistak. Horregatik, bere bikotearekiko hausturak sortzen dion minak eta obsesioak eramango dute protagonista bere inguruko guztiarekiko duen lotura oro zalantzan jartzera eta, aldi berean, azkeneko urteetako bikote-harreman eta esperientziak gogora ekarriz bidaia-psikologiko bat abiaraztera. Protagonistak idazketan eta alkoholean bilatzen du babesa minari eta bakardadeari ihes egiteko; baina horrek guztiak bere efektua galtzean bere mundu afektibo pobrea agerian geratuko da.

2. Gaia

Protagonistaren barne-gatazka da eleberriaren gai nagusia. Protagonista dolu-momentu batean kokatu eta horrek eragindako obsesio bat abiapuntutzat hartuta, Sarriugartek ironia nabarmena baliatuko du gizarte-harremanen eredu tradizionala hankaz gora jarri eta kritikatzeko eta harekin hautsi duenaren noraeza agerian uzteko.

3. Denbora

Denbora psikologikoa gailentzen da *in media res* hasten den eleberri honetan eta batik bat Z-k alde egin duela deskubritzen duen eguna hartzen da mugarrizat. Horren adierazle dira kapituluaren izenburuak (“0”; “-2”; “0”; “-6”; “0”; “0”; “-3”; “0”; “-3”; “0”; “0 (egunsentia)”; “0,01 (biharamuna)”), horietako bakoitzean kontatuko denaren

denbora zein den markatzen dutenak: “0” izenburuak oraina markatzen du; “-2” izenburuak Z ezagutu zuen eguna; “-6” Y ezagutu zuen eguna da; “-3”-k protagonista Gasteizera masterra egitera itzultzen den garaian kokatzen gaitu, Y-rekin azkenekoz Bilbon elkartzen den egunean.

Hori kontutan hartuz, argi dago denboraren hausturek eleberrian duten pisua, etengabeko saltoak ematen baititu iragana eta orainaren artean. Ez du beraz, istorioaren hurrenkera kronologikoa errespetatzen eta gertaerak anakronikoki aurkezten zaizkigu eleberri osoan zehar, analepsiak edo “flash-back” delakoen bidez etengabe egiten baitu atzera bere oroitzapenetan zehar: “Azken hamarkadako urtarrilik epelena da alboko herrian eta baita lehendabizikoa ere, Berlinera joan nintzenetik, urte hasierako azoka da” (47); “unibertsitateko lehenengo mailaren eta hemezortzi urteen Gasteiz horretara masterra egitera itzultzeko ordua” (81).

Oro har, denbora psikologikoa modu argi batean gailentzen den arren, denbora kronikoari egindako erreferentziak ere ageri dira denboraren hurrenkeran eginiko analepsiak finkatzeko: “ostegun batez” (19); “karnabalak” (22); “urtarrilik epelena” (47); “22:45etan” (86); “22:30etan-edo” (90); “ordu erdi inguruz” (104), “Sanprudentzioak” (122), eta abar.

Esan daiteke istorioaren iraupena ordu batzuetakoa dela, asteburua kanpoan igaro ostean etxera heltzen denetik (igande arratsalde batez) hurrengo eguneko goizera arteko tartean garatzen da. Dirudenez, etxera heldu eta Z-k alde egin duela deskubritzen duenean mozkortu eta idazteari ekiten diola:

“Altxatu eta pare bat buelta eman ostean aurkitu ditut bart lekukorik gabe jazotako beste krimen batzuen aztarnak, kubo pare bat, botila hutsa, baso zikina eta, artegagarriagoa dena; itzali gabeko ordenagailuan wordeko artxibo luze-luzea” (137)

Beraz, badirudi irakurleari eskaintzen dizkion “flash-back” horiek protagonistak gauean zehar idatzitako testua direla, eldarnio alkoholikoan idatzia.

4. Espazioa

Eleberrian zehar ageri diren espazioak ugariak eta anitzak dira, baina haien artean egin behar den bereizketarik nabariena bakarra da: kanpo-espazioak eta barne-espazioak (irekiak eta itxiak). Kanpo espazioen artean gehienak gaur egungo Euskal Herrian kokatzen dira (Bilbo, Gasteiz eta jaioterria), baina atzerrikoak ere aipatzen dira (Berlin,

Denver eta Madril). Barne espazio nagusi eta bakarra bere apartamentua da (Gasteizen dagoena, baina narrazioaren baitan leku berezia betetzen duena).

Espazio horietako bakoitza bere bizitzaren pasarte ezberdinekin lotuta dagoela dirudi, leku bakoitzak nolabaiteko lotura izango balu bezala bere bizitzaren aro desberdinekin.

i. Barne espazioa: apartamentua

Nobelan zehar pertsonaiak bere orainaldiari buruz hitz egiten digun bakoitzean ageri den barne-espazioa da apartamentua: eleberraren hasieran ageri zaigun igande arratsalde horretatik amaierako astelehen goizera arte behin bakarrik irteten da bertatik, apartamentu azpian dagoen dendara joateko: “(...) etxepeko dendan naizen bitartean (...). Azken garrasiekin batera zabaldu dut atzera etxeko atea, erosketak besapean” (43).

Gema Lasarteren hitzetan, kritika feministak etxeak emakumeen metafora bezala ulertu ditu (2012: 50) eta *Zergatik panpox* eleberrian, esaterako, hala da. Baina nobela honetan barne-espazio honek bestelako esanahia hartzen du. Izan ere, bertan bakarrik ageri da gure protagonista den bezalakoa. Hortik kanpo dagoenean, ordea, bestelako pertsona batean itxuraldatu eta itxurakerietan galtzen da: etxetik kanpo pertsona zoriontsu eta arrakastatsua ematen du, nahi duen guztia duena eta apartamentuan, ordea, benetako errealitatea azaleratzen da eta bakarrik dagoen pertsona bat ikusten dugu, alkoholarekiko menpekotasun bat garatu duena bere arazoetatik ihes egiteko.

Beraz, tradizionalki ikusitakoaren aurka, emakumea izanda ere, etxea ez da bere lekua, ez da bere burua islatzen duen espazio bat, baizik eta bere ezkutalekua.

ii. Kanpo espazioak: Gasteiz, Bilbo eta atzerria (Berlin, Denver eta Madril)

Emakumeek idatzitako nobela intismistetan “emakumeen espazioak barne espazioak dira nagusiki” (idem: 49), baina eleberrari honetako pertsonaiak bestelako harreman bat du tradizionalki “emakumeen” espaziotzat hartu izan direnekin eta, eleberrian zehar oraina bezala ulertzen den denbora guztia barne-espazio batean (apartamentuan) garatzen den arren, esan daiteke berak kanpo-espazioak dituela gogoko. Izan ere, barne-espazioetan bere arazoak azaleratzen diren heinean, kanpokoetan ahalik eta gehien egiten du arazo horiei ihes egiteko eta intimismo eta bakardadeari ihes egiteko. Hori dela eta, kanpo-espazioetan “sobreesposizioa” nabaria da, gizarteratze bortitz horrek bere burua ikusgarri egiten du eta itxurakerietan galtzen da, bere apartamentuko

bakardadetik ihes egiteko aukera ematen diolako. Nolabait, zenbat eta denbora gehiago egon kanpoan, orduan eta denbora gutxiago du bere apartamentuko bakardade erabatekoa sufritzeko. Hori guztia nabaria da bere atzerriratzeetan ere. Izan ere, bere arazoei aurre egin eta bere burua aurkitzeko egindako bidaiak dira atzerrira egindakoak, fisikoak eta aldi berean psikologikoak:

“Zein-naiz edo areago zein-izan-nahi-dut galdera bai-ala-bai erantzun behar den horietakoa da eta maiz ezin zaio etxean buru egin, giroa hertsiegia baita (...). Norberaren baitan dago herstura eta ezagutzen ez zaituzten kale eta pertsonak bistaratzen dizute maskara identitarioen atzean ari zarela etengabe” (78-79)

Atzerriko hiriei egindako erreferentziak “Erasmus belaunaldia” izeneko euskal idazleekin lotu daiteke. Euskal emakume idazle gazteen artean badago belaunaldi bat Erasmusean joandakoa dena eta bertan bizitakoak haien liburuetan islatzen dituztenak.¹ Belaunaldi horien ezaugarrietako bat beren lanetan atzerriko hiri *cosmopolitak* txertatzea liteke, Sarriugartek bezala (Berlin, Denver eta Madril). Hala ere, ez die garrantzi handirik ematen eta bere burua deskubritzeko prozesuaren parte bezala aurkezten ditu.

Baina, askoz ugariagoak dira Euskal Herriko lekuei egindako erreferentziak eta horietan Gasteiz eta Bilbo ageri zaizkigu. Gasteizko hiria unibertsitate-hiri bezala aurkeztu eta bere sustraietara itzultzearekin lotuta ageri zaigu: “lizentziatu berritan sorteriarekin adiskidetzeko (...), unibertsitateko lehenengo mailaren eta hemezortzi urteen Gasteiz horretara masterra egitera itzultzeko ordua” (81).

Bilbok, aldiz, atzerriko aroaren eta Gasteizek markatzen duen aro berriaren arteko tartea irudikatzen du. Beraz, mugarriztat har daitekeen leku bezala uler liteke, aro baten amaiera markatzen du. Eta hala iradokitzen dute protagonistaren hitzek: “Trantzean igaroko dira, baina, egunak, eta halako batean Gasteizera aldatzea iritsiko da, bizitza sartuko da, hitz batean, tartean” (117).

Amaitzeko, ez du ematen bere jaioterriarekiko lotura handiegirik duenik, ezta jaioterrian bizi direnekin ere (familia eta lagunak). Ez du haiekiko lotura afektibo askorik erakusten eta lagunetik harremana berak aukeratutakoa ez dela ematen du aditzera:

¹Beñat Sarasolaren hitzetan (2011), Iban Zaldua, Xabier Mendiguren eta Pako Aristi izan ziren “Erasmus belaunaldia” delakoa aipatzen lehenak, 2010 eta 2012 urteen inguruan. Geroago, belaunaldi horren barruan kokatuak izan ziren emakume idazleetako batzuek (Irati Goikoetxea, Katixa Agirre, Irati Jimenez, Iratxe Esaneola, etab.) *Orgasmus* (Txalaparta, 2010) lana argitaratu zuten.

“Edonola ere grazia egin didate beti “lagunak hautatu egiten dira, familia ez” esatera atrebitzeko gibela dutenek Euskal Herrian, edo begiak itxita bizi dira edo Euskal Herriko kolonia metropolitanoren batetik dihardute, Bartzelonatik edo, hemen lagunak hautatzeak *sangrea eta sudoreak* eta ezinikusi betirakoak baitakartza” (160)

Beraz, agian horrek eramaten du protagonista bere jaioterriarekiko loturetatik ihes egitera.

5. Pertsonaiak

Pertsonaia bakoitzaren azterketa narratologikoarekin hasi baino lehen, azpimarragarria da protagonista izatea eleberriko pertsonaia garatuena –batzuek pertsonaia bakarreko eleberrizat ere hartu izan dute (Agirre, 2014: 18)–, eta beste guztiak, nolabait, kontatu nahi denaren arabera eraikitakoak izatea, apunte soilak baino ez. *Zergatik panpox* eleberrian ere hori gertatzen da eta Olaziregik horrela azaltzen du erabaki hori: “Pertsonaien deskribapen desberdintasun honen oinarrian, pertsonaia nagusiarengan kokatutako fokoari etengabeko lehentasuna emateko erabaki literarioa daukagu.” (1999: 53).

Horrela, narratzaile protagonistaren bidez pertsonaia bakoitza testuratzen zaigu eta beraz, pertsonaiak ezagutzera emateko bidea protagonistaren pentsamenduak dira.

Oro har, pertsonaiei emandako izenek ekuazio bat irudikatzen dute (Z, Y, A, B, D, Ö, U) eta ematen duenagatik, ebatzi gabeko ekuazio bat da, non protagonista X osagaia izango litzateke –eta beraz, garrantzitsuena–. Nolabait, bere bizitzako pertsonen ekuazio baten osagaien izenak ematea pertsona hauek bere bizitzan lekurik ez dutela adieraz lezake, protagonistaren mundu afektibo pobreaken isla dira. Iraitz Urkuloren hitzetan, azken urte hauetako idazle berrieekin heldu zaigun joera da hau, Alaine Agirrek *Odol mamituak* eleberrian ere egiten baitu: “Formari dagokionez, egitura zatikatua, letrak erabiltzea izenen orde, sinonimoen pilaketa eta puntuazioaren lehertzea” (2014).

Orokorrean protagonistak Z eta Y-rekin bizitakoak hartzen ditu hizpidetzat, baina beti kokatzen du bere burua pertsonaia garrantzitsuena bezala eta beste pertsonaiak bere inguruan egituratutako ekuazioaren bigarren mailako osagai gisa irudikatzen ditu. Hau da, atzeko plano batean eta protagonistaren izaera eraikitzeko bitarteko bezala, protagonistaren koadrillakideak (A, B, C, D, U) eta familia (ama) ageri zaizkigu.

i. Protagonista:

Pertsonaiek osatzen duten ekuazioaren baitan X genuke protagonista (eleberrian izen hori aipatzen ez den arren, hori ematen dute aditzera gainerako pertsonaiei emandako izenek). 30 urteetara hurbiltzen ari den emakumezkoa da, istorioa garatzen den momentuan Gasteizen master-ikasketak egiten ari dena.

Emakume bidaiazalea, literatur-zale amorratua eta parrandazalea da, eta joera nabari bat ageri du alkoholarekiko (akaso bere egoera sentimentalak bultzatuta). Horregatik, eleberrian protagonistaren horditasun-egoera azpimarratu behar da, baita horrek eragindako pentsamendu-jario amaigabea eta ideien eldarnio zoroa ere.

Ikus dezakegunagatik, oso pertsonaia konplexua da, istorioan zehar garapen argi bat ageri duena: istorioa hasten den momentutik amaierara arte dolu-aro ezberdinetatik igarotzen da. Izan ere, nobelaren hasiera markatzen duen gertaera bikotekideak abandonatu duela deskubritzen duen momentua da eta momentu horretatik aurrera dolu-prozesu batean murgiltzen da, non arratsalde horretatik hurrengo eguneko egunsentira arteko denboran alkohola edan eta bere bizitzako azkeneko urteak gogora ekarriko dituen. Zehazkiago, izan dituen harreman afektibo-sexualetako batzuk errepatatuko ditu.

Eleberriaren 173 orrialdeetan zehar, beraz, nolabaiteko garapen bat jasaten duela ikusten da; dolu-prozesuaren aro desberdinak ikus ditzakegu bere baitan: lehendabizi, amorrus beteta dagoela ikus dezakegu, triste baino gehiago: “Madarikatua. Madarikatua. Madarikatua” (9). Baina horretaz gain, minduta ere badagoela ematen du aditzera, eta min hori arintzeko idazteari ekiteko asmoa duela alkoholean babesa bilatu bitartean:

“Baina burmuinak diost ez daukadala zertan eskatologiko jarri, ezta nire buruargitasuna iraindu edo usaimen-papilak zigortu ere, baizik eta hobe nukeela atzamarrak zorrozuta neure burua odolustu, izerditu, isuri. Gainezka egitear dagoen minaren indarrarekin teklatura zanpatu eta oldarraren hondarretatik zerbait eraiki.

Monologue intérieur, barne bakarriketa modua abiarazten duen botoia sakatzen dut, lokietan gotortutako bozei mihia askatzen diena, eta lehen kontsonanteak urratsen du onomatopeien gehiengo osoa.” (17)

Doluaren bigarren fasea idazketa-prozesuaren parte diren momentuak dira; ordu horietan zehar alkohola edaten jarraitu eta bere bizitzako pasarteak gogora ekartzen ditu, batez ere Y eta Z-rekin igarotako momentuak (akaso auto-zigorketa gisa).

Beraz, aurrerago aipatu bezala, eleberrian zehar ikus dezakegunagatik, alkoholarengan babesa bilatzen duen pertsona da, nolabait harekiko menpekotasuna duena:

“Latak ondo tolestuta poltsan inkognitoak atera ditzakezulako apartamentuan legokeen beste inor ohartzeko astelehen buruzuriz zeure gelan bakar-bakarrik zurrutean ari zarenez arazo bat daukazula pentsa ez dezan, nahiz ezkutaketa eta azpilan hori bera den arazo bat duzulako adierazgarri garbiena” (14);

“Egiantan askoz ilunagoa eta korapilatsuagoa eta konplexuagoa izan da beti nire alkoholarekiko harremana, horretan eragina izan dute, besteak beste, gure gizarteak alkohola droga onargarritzat eta are sozialki sustagarritzat jotzeak eta odolean nahastuta daramatzadan aurrekari genetikoek” (147).

Amaitzeko, doluaren azkeneko fase batean, auto-zigorkatzearekin amaitzea onartzen du: “Gehiegizkoa da auto-zigorkatzea, ni neu ere jabetzen naiz azken pentsamendu horiei arreta apur bat gehiagorekin erreparatu ostean” (127). Hori horrela, alkoholaren horditasunaren ondoriozko eldarnio amaituta, “normala” izan nahi zuela onartzen du eta bidaia bati hasiera emateko asmoa duela adierazten du: “Ihes egiteko historikoki erabili ohi izan dudana motxila ia topera betea atari ondoan” (137); “Leihoak zabaltzeak mesede egiten dio ikaragarriki apartamentuaren egoerari eta oro har itxurari; (...), eta eguraldi ederrak ematen dio behar adina argi bertan iraun nahi lukeen edonori” (139).

ii. Z

Z-k, denbora zehazgabe baina luze samar baten ondoren, protagonistarekin duen harremana moztea erabaki eta apartamentutik alde egiten du, azalpen bakarra ohar txiki batean utziz.

Haien harremanak aurrera ez egitearen arrazoia biak ala biak iraganari ihesi zebiltzala elkartu izana da: “gureari gertatu zaiona, atzean genekartzanengandik ihesi supituan talka egin eta batak bestearengan ezkutaleku komenigarria topatu genuela” (120). Hau da, batak bestearengan babesa bilatu zuten: Z bere aurreko bikotearekin moztu berritan zegoen eta protagonistak, Y-rekin izandako harreman korapilatsuen ondoren, harreman normal baten beharra sentitu zuen.

Edozein modutan ere, azkenerako aitortzen du Z-rekiko harremanaren arrazoi nagusia normala izateko nahia izan zela: “Aitor dut: normala izan nahi nuen” (124). Liburuan zehar gizartean nagusi diren eredu tradizionalak eta “normalak” kritikatu ostean,

amaiera-parte honetan berak ere normaltasuna nahi zuela onartzen du, bere burua gizartearen parte zela sentitu nahi zuela:

“Behintzat nire izate ustez hain periferikoaren alor batean erdigunekoa izan nahi nuen, ohikoa, konbentzionala. Monogamoa, heterosexuala. Jarraitzaile leial bat eduki, kontzertu galeria tanatorio afari ezkontzetara inoiz ez gehiago bakarrik joan, une terribletarako larrialdi-zenbaki bat markatu ahal izan, desleku desordu deseran ez bizi, taldean integratu, inguratzen ninduen mundu txikiari frogatu neu ere banintzela maitatua izateko modukoa. Edonor eta guztiok bezala, funtsean. Hipoteka, zakurra, lorategia.” (124)

Horrela, kritika egiten dio gizartearen eredu tradizionalari, baina aldi berean eredu horren barnean ikusi nahi du bere burua.

iii. Y

Protagonistak bere iraganaren inguruko pentsamenduak aurkezten dizkigun momentu gehienetan Y-rekin izandako harremanaren berri ematen digu: noiz-nola-non ezagutu zuten elkar, elkarrekin igarotako gauen zehaztasunak, hurrengo egunetako tratu hotza...

Protagonista bere atzerriko egonaldietako batean jaioterrira oporretan bueltatutakoan ezagutu zuen Y eta gau hori elkarrekin pasatu zuten. Aipatzen duenez, atzerritik jaioterrira egindako bidaietan elkar ikusteko ohitura hartu zuten, baina harreman serio eta formal baterako konpromisorik hartu gabe. Hau da, haien arteko harremanak eredu tradizionaletik kanpoko harreman kanonikoa islatzen du: noizbehinkako sexu-harreman hutsa da. Hala ere, nahiz eta protagonistarentzat Y-rekin duen harremana gizarteak markatzen duen arautik kanpokoia izan, azkenerako onartzen du nahiago duela Z-rekin egon eta “normala” izan.

iv. Kuadrillakoak: U, A (eta D), B, C

Ez du harreman estuegia koadrilakoekin, elkarrengandik oso desberdinak direlako eta horrek haiekin duen harremana birplanteatzera eramaten du: “argi dago berriz planteatu behar nuela pertsona horiekiko sentitzen nuen ustezko laguntasunaren izaera” (160).

Lagunak aipatzen ditu Bilbon igarotako ostegun gau hartako parrandakide bezala eta “soldatapeko monogamo heterosexualaren maskara” (86) jantzita duten pertsonak direla esaten du. Beraz, ez du harreman onik mantentzen haiekin. Hala ere, U aipatzen

duenean garai batean benetako laguntzat izan balu bezala deskribatzen du, baina momentu batetik aurrera harreman hori moztu zela azaltzen du.

Beraz, harreman sentimentaletan bezala, lagunekin eta familiarekin dituen harremanetan ere, protagonistaren bizitza afektiboak ez du sakontasunik eta bere bizitzaren ezaugarri nabarmenenak bakardadea eta mundu afektibo pobrea dira.

v. Ama

Lehenago esan bezala, gure protagonistak bere jaioterriarekiko duen harremana ez da oso estua, eta horren baitan sartzen dira bere jaioterrikoak direnekin duen harremana ere: familiarekin, eta zehazkiago, amarekin.

Aditzera ematen duenagatik, amarekin harremanetan jarri behar bada, ondo dagoela esateko izaten da, harreman estua ez dutenaren seinale:

“Azkenean ez dut, dena den, deituko; ez dago tradizioz gainbehera psikologikoetan laguntza eske berarengana jotzekorik, historikoki kontu ekonomikoetarako eta noizean behin akademikoetarako besterik ez dut baliatu, eta lehen soldata finkotik aurrera asteroko trinitate-inbentarioa baino ez zaigu gelditu: bizirik nago, jaten dut, ez dut dirurik behar” (74).

6. Narrazioa eta narratzailea

Narratzailea istorioan parte hartzen duen narratzailea da, intradiegetikoa eta homodiegetikoa. Lehenengo pertsonan idatzitako istorioa da, non protagonistak bere istorioa kontatzen duen eta bidai-psikologiko bat egiten duen bere oroitzapenetan zehar. Horregatik, barne-fokalizazio nabaria duen eleberria dela esan daiteke.

Nobelan narratzaile-protagonistaren gogoeten jario etengabea irakurtzen da, barne-bakarrizketa ez amaituzkoan egituratutako istorioa da. Horrela ematen du bere oroitzapen, esperientzia eta iritzi guztien berri. Emakumeek idatzitako liburuetan sarri ikusten den bezala, protagonistak “bizi duen denboratik bizi izan duenari begiratzen dio” (Lasarte, 2012: 41).

Beraz, barne bakarrizketaren bidez, ahots desberdinez jabetzen da narratzaile-protagonista hau, batzuetan narratzaile gisa soilik agertuz (hau da, kontaketa hutsa eginez) eta beste batzuetan bere pentsamendu edo mintzoak agertuz.

Honetaz guztiaz gain, oso aipagarria da narratzaile-protagonistak bere iraganari buruz gogoeta egin bitartean horiei buruz idazten egotea. Hori ematen du aditzera, behintzat, liburuaren zenbait pasartetan: “*Monologue intérieur*, barne bakarriketa modua abiarazten duen botoia sakatzen dut, lokietan gotortutako bozei mihia askatzen diena, eta lehen kontsonanteak urratsen du onomatopeien gehiengo osoa” (17); “itzali gabeko ordenagailuan wordeko artxibo luze-luzea” (137).

Horregatik, narratzaile-protagonistak ematen dituen orainaldi/iragan jauziak edo tartekatzeak istorioaren barneko errealitate/fikzio jauziak balira bezala interpretatu litezke. Hau da, bere orainaldiari buruz mintzatzen zaigunean istorioaren orainaldiko errealitateari buruz ari zaigu (Z-k abandonatu duela konturatu da eta ondorengo orduak), baina iraganari buruz mintzatzen zaigunean, ordea, bere errealitateari buruz ari zaigun arren, narratzaile-protagonista dena ordenagailuko “wordeko artxibo” horretan eraikitzen ari den fikzioaren (idazten ari den istorioaren) parte diren zatiak kontatzen dizkigula interpretatu daiteke.

Baina ez hori bakarrik, edan ahala oroitzeari eta idazteari ekiten dionez, bere pentsamenduetan islatzen zaigun mundua eldarnio zoro baten gisara aurkezten zaigu, jario etengabe eta (batzuetan pixka bat) zentzugabe bezala.

VI. LITERATURA POSTMODERNOAREN ZANTZUAK LIBURUAN

Lehenago esan bezala, liburu honek berritasun eta berezitasun zenbait ekarri ditu euskal literaturaren esparrura: berritasun formalak eta berritasun tematikoak. Berritasun formalen artean oin-oharren erabilera metaliterarioa eta diskurtsoan ikus daitekeen sorkuntza lexiko berezia daude. Bestetik, berritasun tematikoetan, gaien tratamenduaren gordintasun eta esplizitutasunaz gain, gorputzaren eta botere harremanen inguruko hausnarketa ditugu.

1. Berritasun formalak

1.1. Oin-oharren erabilera metaliterarioa

Erraiak nobelak duen beste berezitasun bat alderdi formala da, liburuaren amaieran idazleak gehitutako oin-oharrak daudelako.

Oin-oharren erabilera literarioa lehendabizikoz David Foster Wallace idazle estatubatuarrek *La broma infinita* eleberrian erabili zuen teknika da eta, fikzioa idatzi bitartean, idazleak oin-ohar bat txertatu eta bertan, liburuaren amaieran, burutazioak edo ideiak idaztean datza. Honen helburua istorioaren argumentuan ahalik eta etenaldi gutxien egitea da. Sarriugarteren hitzetan, “oin oharrak jartzen horregatik hasi nintzen, kontakizuna moztea galarazteko” (Agirre, 2014: 20).

Wallace-en teknikari buruz hitz egiten duenean Stephen J. Burn-ek dioenez, oin-oharren bidez idazle estatubatuarrek lortzen duena bere baieztapenak behin eta berriz berrikustea da (2012: 79)². Gainera, horrelako digresioren bat egiteko beharra sentitzean oin-ohar bat txertatzeak aukera ematen dio idazleari liburuaren amaierarako partera salto egin eta aipagarria den zerbait garatzeko, berriz testu nagusira itzuli baino lehen (idem: 81).

Euskal literaturan *Erraiak* liburuan ageri dira estreinakoz oin-oharrak diskurtso narratiboaren baitan garatuta. Izan ere, *Kristalezko begi bat* (Miren Agur Meabe, 2014) eta *Beltzuria* (Ixiar Rozas, 2015) eleberrietan ere ageri dira, baina batean taxu lirikoa nagusitzen da eta bestean, aldiz, erreportai estiloa.

Oin-oharren estilo berezi honek, Wallacenak bezala, eleberrian baitako diskurtso metaliterario bat sortzen du eta errealitatearen eta fikzioaren mugak lausotu egiten ditu. Beraz, egitura horren bidez, beste dimentsio bat sortzen du fikzioan eta, aldi berean, fikzio hori zalantzan jartzen du. Horrela, etengabe gogorarazten dio irakurleari fikzioan murgilduta dagoela. Hau da, oin-oharren erabilera metaliterario honek fikzioa bera zalantzan jartzen du eleberri honetan, Wallacen oin-oharrek egin bezala.

Beraz, agerikoa da idazle estatubatuarren zenbait ezaugarriren eragina eta, hala, eleberrian zehar behin baino gehiagotan aipatzen da: “DFWren *La Broma Infinita*” (113), “David Foster Wallace, *Oblivion* bildumako azkenean, *The Suffering Channelen*” (142) eta David Foster Wallace idazlearen konta-teknikei egindako goraiipamena (144). Horretaz gain, maiz aipatzen da ere Charles Bukowski idazlea, “dirty realism” delakoaren parte izandakoa, Raymond Carver eta John Fante idazleekin batera. Carlos Belaneren hitzetan, “garraztasuna, umore beltza eta ironia” (2011: 8)³ dira Bukowskirengan bereziki aurkitu daitezkeen “dirty realism” honen ezaugarri nagusiak

² Hemendik aurrera egingo ditudan Burn-en aipamen guztiak nik itzuliak izango dira.

³ Carlos Belaneren aipamen guztiak nik itzuliak dira.

eta “feministen artean arrakasta ezaguna” (idem) izan duen idazlea da. Beraz, horrek erakusten du eleberri honetan Bukowskik eragin nabaria izan duela.

Gainera, bestelako literatur obra eta autore asko ere aipatzen dira. Batzuk literatura feministarekin lotutakoak: Angélica Liddell (29-30), Virginia Woolf (71), Simone de Beauvoir (144) eta abar. Beste batzuk, ordea euskal literaturaren barnekoak: Saizarbitoriaren *Martutene* (8); Joseba Sarrionandiaren “Maggie indazu kamamila” (35)...

1.2 Diskurtsoaren berezitasuna eta sorkuntza lexikoa

Eleberriaren diskurtsoari dagokionez, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* eta Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* eleberriekin konparatu liteke, zenbait arlotan bada ere.

Hasteko, *Zergatik panpox* eleberriak bere garaian ekarri zuen berritasunarekin lotu daiteke *Erraiak* hau, bai jorratutako gaien aldetik baita suposatu zuen estilo berrikuntzagatik ere. Izan ere, Urretabizkaiaren nobela arrakastatsu harekin, orduko tradizioarekiko haustura bat heldu zen gaien tratamenduaren aldetik, baina baita narratzaile-protagonista emakumearen irudiagatik ere:

“Eleberri osoan zehar, pertsonaia nagusiaren, izengabeko amaren, gogoeta jarioa entzungo dugu. Barne-bakarrizketa honetan, batzuetan irakurleari hitz egiten diola dirudi, beste batzuetan bere buruari, askotan Antxoni, bere semeari, gutxitan Txemari, senar ohiari. Hala ere, barru fokalizazio finkoa dugu.” (Muñoz, 2012: 61)

Hori izan zen Urretabizkaiaren berrikuntza nagusietako bat, eta nobela horrek 70eko hamarkadan izan zuen arrakasta eta tradizioarekiko sen apurtzailea dira *Erraiak* nobelak orain suposatu duen berrikuntzarekin konparatzeko arrazoia.

Emakumeek idatzitako literaturan *modus* autobiografikoa deritzoguna gailendu ohi da eta horrelakoetan lehen pertsonan hitz egiten duen emakumeak agertuko dira normalean eta “pertsonaia horiek euren esperientzietatik abiatuta, memoria lagun dutela, nia eraikiko dute” (Lasarte, 2012: 37). Arrunta da, beraz, emakumezkoek idatzitako liburuetan *Erraiak*, *Zergatik panpox* edo *Kristalezko begi bat* bezalako planteamenduak agertzea. Lasarteren hitzetan, horrelako nobeletan memoriak paper garrantzitsua betetzen du *modus* autobiografikoaren baitan, emakumeek beren identitatea eraikitzeke egindako saiakeraren parte delako:

“Balirudike emakume idazleen mendeetako isiltasunak derrigortu dituela emakume idazleak identitate eraikuntza hartzera idaztanceraz; mendeetan isildutakoa, ukatutakoa, ikusi gabekoa eraiki ahal izateko, memoria lagun” (idem: 38)

Nolabait, horrelako eleberrietan, emakumeek beren nortasuna eraiki nahi izan dute azkeneko hamarkada hauetan eta horretarako idazketa-prozesua baliatu dute. Olaziregik esan bezala, objektu huts izatetik subjektu izatera igarotzeko pausua eman dute:

“Nortasuna bera izango da, finean, emakumezkoen nobela autobiografiko horietan aztertu nahi dena. Mendebaldeko nobelagintzan objektu huts izatera kondentua zegoen emakumezkoen ahotsa, indar berriz agertuko zaigu lan hauetan.” (1999: 60)

Horrelako nobeletan, beraz antzekotasun zenbait betetzen dira:

“Lehen pertsonan narratzen da batik bat, eta modu objektiboa subjektiboarekin aldatzen da. Linealtasuna hausten da fragmentazioaren alde, eta denborak tartekatzen dira. Horrela, orainaren eta iraganaren artean etenik gabe jauziak ematen dira. Anakronia etenik gabe gertatzen da. Barne mintzaira askotan agertzen da, eta deskripzioak gutxitzen dira, pertsonaia maskulinoek garrantzia galtzen duten bezalaxe. Pertsonaia femeninoek narrazioaren baitan subjektuaren funtzioa hartzen dute eta identitate berreskuratzea dute objektutzat, zeregin horretan, komunizki, laguntzaile gisara emakumeen konstelazioa agertzen da. Aurkari modura, iragana, subjektibotasuna ukatu dion iragana, eta horren eragile gisara, jeneralki, gizartea; askotan, familia tradizionala.” (Lasarte, 2012: 51)

Eta *Erraiak* eleberrian ezaugarri nagusi hauek ematen dira orokorrean (salbuespenak albuespen) eta, beraz, alde horretatik emakumeek idatzitako eleberrigintza intimistaren baitan kokatu dezakegun nobela da. Baina, aldi berean, ez du Lasartek emakumezkoen nobeletako beste ezaugarri batzuekin betetzen:

“Afektibitate munduaren balorazio handiagoa; pertsonen arteko harremanetan sakontzerakoan, pertsona gehiago baloratzea funtzio baino; sensibilitate handiagoa bizitzaren inguruan; gorputzaren eta amatasunaren bidez hartu-eman zuzenagoa; sexualitate eztiagoa” (idem: 47)

Kontrara, ezaugarri horien aurkako sensibilitatea nabari zaio Sarriugarteren nobelari eta alde horretatik oso eleberri apurtzailea da. Izan ere, eleberri gordina da, *Erractus* ikuskizuna deskribatzeko erabili diren hitz berak baliatuz, “erradikala, feminista, matxinoa eta sentsuala; eta baita erraiak forman ere, zaplastako baten gisakoa, bortitza eta asaldagarria.” (Garro, 2015: 33). Zuzenean esaten ditu esan beharrekoak, gordinki hitz eginez sexuaz, masturbazioaz, drogez zein gizarteaz: “nabari dezaket nola hedatzen

zaizkion niniak, herriko jaietan gizonago sentitzeko kokaina hartzen hasi zenean bezala” (56); “ikurrinaren eta basquetasunaren erabilera folkloriko komertzialarekin, azken indigena europarraren xarma mistikoa saldu nahi izatearekin, herritar euskaldun fisikoen eskubideak ito bitartean” (145); “erabaki dut Z-ri zakila funtzionalki jan behar diodala, alegia, nire zintzurrean isuri arte irentsi behar dudala” (129), eta abar. Euskal literaturan horrelako gaiak hain gordinki landu dituen eleberririk ez da eta horien inguruan egungo gazteriak duen ikuspegia islatzen du bete-betean.

Honekin lotu daiteke lehenago aipatutako Charles Bukowski eta haren “dirty realism” delakoaren eragina, honen ezaugarrietako bat baitzen gordintasuna: “[“dirty realism” delakoak], idazle-talde batek jarraitutako mugimendu literario gisara, bizitza gertaera erreal eta gordin gisara agertzen du” (Belane, 2011: 8).

Horretaz gain, hori guztia lantzeko narrazio-pertsonaiaren barne-bakarrizketa darabil, baina jario geraezin baten erritmoan. Esaldi luzeak erabiltzen ditu Sarriugartek, oso erritmikoak, horretarako baliabide estilistiko ezberdinak erabiliz: egitura paralelistikoak paragrafoen hasieran, sinonimia ugaria, konparazioak, hiperboleak, eta abar. 26-27 orrialdeetan dauden paragrafoen hasieran, adibidez, erritmoa markatzeko esaldi bera erabiltzen du anafora baten gisan: “Z-k ez du nire ohiko ohaideen kasik inongo antzik...” (hiru paragrafoen hasieran) eta gero 27-28 orrialdeetan, berriz, “gaurkoa ezin egon liteke urrutiago...” egitura darabil paragrafoen erritmoa markatzeko eta haien arteko lotura egiteko.

Gainera, narrazioaren erritmoa handiagotzeko sinonimoak, errepikapenak eta zerrendak erabiltzea ere ohikoa du Sarriugartek: “xuxurla ditzatela hitz nahasiak, irainak, musuak, arnasestuak, musuak, musuak, musuak” (32); “supituan oihuka ez diezaien inguruan dabilzkion oinezko horiei gupidagabeki arruntak direla, miserableak, erdipurdiko izakiak, masa osatzen dutela, ez dakitela ezer, ez dagitela ezer” (106); “Ezinegona. Dardara. Osotasuna” (109). Horretaz gain, onomatopeiei garrantzia ematen die eta horrela narrazioari erritmo freskoa, bat-batekoa emateaz gain, zentzumeneren garrantzia ere azpimarratzen du, soinu, gustu eta ukipen sentsazioen eroale bihurtuz: “Plok-plok-plok” (7, 15, 64, 74, 98, 109, 119, 173); “glogloglo” (14); “punpunpun” (30); “kraska kraska kraska” (64); “fru-fru” (94); “plok eta plok eta plok” (124); “zirt-zart” (169)...

Are gehiago, jerga sozialean erabili ohi diren elementuak ugari eta arruntak dira eleberrian zehar eta David Foster Wallacek bezala, pop-elementuak txertatzen ditu bere

kontakizunean (Burn, 2012: 139), hala nola, egunerokotasuneko produktuen markak, eta abar: “vaguesil kremaren iragarkian” (81); “twitterlariari” (94); “pare bat toblerone, hiru mars barra eta kinder arrautza batekin batera” (111); “beefeaterak eta negritak” (114); “kas limoiak eta pepsiak” (114); “MacDonalds jatetxean” (133).

Diskurtsoaren berezitasunarekin amaitzeko, oso berezia eta azpimarragarria da idazlearen sorkuntza lexiko nabaria. Autorearen beraren hitzetan, itzultzailea izanagatik “ingelesarekin lotura estua” du “eta hizkuntza horrek joera nabarmena du izen batekin izenlagunak egiteko” (Agirre, 2014: 21). Baina ez hori bakarrik, izenak izenlagun bihurtzeaz gain, atzizkien bidez edozein hitz kategorია beste kategoría bat bilakatzeko abilezia erakusten du Sarriugartek, eta, horrela, asmatutako hitz berri ugari topatzen ditugu liburuan zehar: “txortagarri” (13); “putatiartzat” (30); “okaztagarriki” (33); “eztarriratu” (34); “goiztiarki” (49); “ongietortzen” (51); “kontukorronteratzerá” (57); “platonikotasunetik” (64); “noizbehinkakotasun” (77); “nomadatasun” (77); “errepikaezintasunaz” (88); “sahiestezinkiago” (92); “zirtzartki” (106)...

Hitzak asmatzeko Sarriugartek erakusten duen gaitasunari dagokionez, Wallace idazle estatubatuarrak ere maisuki erakusten omen du (Ferrer, 2015). Beraz, argi dago idazle estatubatuar honek eragin berezia izan duela elgoibartarraren lanean, bai hizkuntzaren aldetik baita, gero aztertuko dugunez, lanaren egitura formalean ere.

Gainera, Urkulok horrelako ezaugarriak identifikatzen ditu Alaine Agirreren eleberrian ere; dirudienez, idazle berriengan hasi den joera baten aurrean gaude baina agian gero eta gehiago hedatuz joango da:

“Erritmoa, sintaxia eta hitzen morfologiarekin esperimentatzen ere ausartzen da, benetan poztekoa dena, jarrera horrek molde tradizionalak gainditu eta bide berriei ekiteko arriskua hartzeko prest dagoen autore baten aurrean kokatzen gaituelako.” (2014)

2. Berritasun tematikoak

2.1. Sexua, alkohola, drogak: gaien tratamendu gordina

Aurretik esan bezala, idazleak gai ugari jorratzen ditu eleberri osoan zehar, ironiaz bustita eta oso modu gordinean. Oro har, XIX. mendeko emakume gazte baten bizitzaren egunerokotasunean ohikoak diren gaiak dira denak, Euskal Herriko edozein gazteren buruan egon litezken pentsamenduak dira, baina modu gehiegizko eta barrokoan pilatuak. Landutako gaiak normalean gaur egungo gizarteari kritika egiteko

modu bezala baliatzen ditu edota, behinik behin, gaur egungo gizartean dauden arazoetako batzuk agerian uzteko, eta hortik dator gehiegikeria irrealista hori: kritikaren jomuga nabariago egiteko. Hori dela eta suertatzen da batzuetan hain gordina eta ezerosoa eleberri hau, errealitatea zuzenean eta amplifikatua islatzen duelako.

Gordintasun hori sexu-gaietan eta gai eskatologikoetan nabaritu da gehien, eta tabu sozialak gainditzeko nahi bat ikus daiteke bertan, irakurleen arreta piztuko duten gaiak aukeratuta. Horrela, gai horiei buruz ahalik eta era naturalean mintzatzen da eta, aldi berean, edozer gauzari buruz hitz egiteko beharra aldarrikatzen du idazleak.

Landutako gai garrantzitsuenetako bat parrandaren gaia da, horren baitan kokatuko genituzkeelarik alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoari buruzko mintzoa.

Eleberrian zehar lantzen den gai nagusietako bat parrandaren inguruko giroa da, eta horren baitan drogak aipatzen ditu behin eta berriz, narratzaile-protagonistak menpekotasun-harreman bat baitu alkoholarekiko. Euskal gazteriaren gaur egungo errealitatearen parte da alkohola, maiz alkohola kopuru handitan eta arazoei ihes egiteko aukera bezala erabilia.

Ematen du eleberriko protagonista erabiltzen duela euskal gazteriak (edo, orokorrean, munduko gazteriak) alkoholarekin duen harreman horri kritika egiteko:

“Eta orain zer?

First things first.

Gutizien armairura hurbildu eta izotz pusketekin eta graduazio altuko alkohol gardenarekin eta irekitzeak txis-s-s-sp gisako soinuak egiten dituen burbuiladun tonikarekin bete dut edalontzia.” (13)

Horretaz gain, Madrilen emandako denboraldian ere alkoholak bere bizitzan zuen garrantzia aipatzen du eta aitortu egiten du arazo bat duela. Horregatik, pentsa liteke idazleak protagonistaren izaeraren parte hori aprobetxatzen duela gure gizartean dagoen arazo errotuenetako bat agerian utzi eta kritikatzeko.

Berdina egiten du bestelako drogekin ere, baina alkoholarekiko menpekotasuna protagonistaren arazoa denez eta eleberrian zehar bera denez hitz egiten duena, alkoholaren arazoa ez du hain gogorki gaitzesten eta bai, ordea, bestelako drogen kontsumoa: “batez ere astelehen goizetan ohetik jaiki ahal izateko kuria biltzeko

asteburuko kokainaren beheraldiari aurre egiteko edozer hartzen hasi zenetik” (56); “ez doala txiza egitera baizik eta beharrezko zaion lerrotxoa hartzera” (58).

Horrelako aipamenerik kritikatzeko du gaur egungo gazteriek drogekiko duen harreman estua, etengabe aipatzen baitira droga kontsumitzaileak diren gazteak, Euskal Herriko gazte askoren isla ezin hobea.⁴

2.2 Gorputzaren eta botere harremanen inguruko hausnarketa

Nobelako gai garrantzitsuena hau izan daiteke, eta gai honetan, besteak beste, berritasun handi bat ekarri du Sarriugartek. Izan ere, emakumezkoek idatzitako euskal literaturan gorputzak beti leku nabarmen bat bete duen arren, sexualitatearen eta horren inguruan hain libreki eta gordinki hitz egin duen idazlerik ez da egon orain arte.

“Gorputzari objektu moduan begiratu izan dio literatura idazleak urteetan zehar, edonon topa dezakegun begirada ni poetikoaren lekuan gizona eta zu poetikoaren lekuan emakumezkoa izango da; ikuspegi heteropatriarkalaren eredu hegemonikoa papereratzuz”
(Alvarez, 2014: 91)

Baina eleberri honetan egoera hori erabat irauli da eta, azken urteotan euskal literaturan emakumeek idatzitako liburuetakoa ereduari jarraiki, emakumearen gorputza subjektu bezala ageri zaigu, eta ez objektu bezala. Are gehiago, gure tradizioa ikuspegiarekin are gehiago apurtuz, tradizionalki emakumeari eta haren gorputzari eman zaizkion paperak ere hautsi ditu:

“Errealitatean bezala fikzioan ere irudikatu izan da emakumeen gorputza seme-alaba emaile edo objektu sexual pasibo bezala. Euskal literatura garaikidean pisu handia izan du urteetan zehar euskal nazionalismoak ezarritako emakume irudi idealak: ama eta etxeoandre abertzalearena, hain zuzen. Honi gehitu behar dizkiogu erlijio kristauak gizonen menpeko izatera, gorputza ezkutatzera eta bere desioei muzin egitera behartu dituela eta diskurtso mediko-zientifikoak euren gorputza zikin eta gaixo ikustera ohitu dituela.” (idem: 91-92)

Horren kontrara, Sarriugartek tradizio horrekin apurtu du erabat eta bere protagonista ez du ez ama ezta etxeoandre ere egin, eta are gehiago, bere gorputza ezkutatzeari eta

⁴ *Euskadi eta drogak* inkestaren arabera (2013: 201-205), 15 eta 34 arteko gazteetan, Azkenaldiko Kontsumo Indizeak (AKI) honakoak ziren 2012an: alkoholaren AKI %90,7; kanabisaren AKI %38,2 eta legez kanpoko beste drogen AKI %27,9. Gainera, adin tarte horretako gazteen %31,8 bakarrik omen dira drogen kontsumoarekin inolako zerikusirik ez dutenak eta gainerakoek nolabaiteko inplikazioa dute (hurbila edo tartekoa).

desioei muzin egiteari uko egiten dion protagonista bat dakarkigu, euskal literaturan hain presente egon den amaren irudia ere kolokan jartzen duena.

Lasartek esaten duen bezala, “gorputzaren, ispiluaren, espazioaren eta harremanen inguruan egindako gogoetak” (2012: 25) oso ugariak izaten dira emakumezkoek idatzitako liburuetan eta *Erraiak* eleberria horien artean sartu daiteke. Izan ere, idazleak emakumezkoen gorputzari “gorazarre” egiten diola esan dezakegu eta horretarako bere gorputza ondo ezagutzen duen emakume bat aurkezten digu bere eleberrian. Horrek boterea adierazten du: “gorputzaren ezagutza eta boterea banaezinak dira” (Torras, 2014: 18).

Horrelako protagonistak dituzten eleberriei esker, emakumeek beren ahotsak aurkitu dituzte; are gehiago, subjektu aktibo bihurtu dira eta inposatutako rolekin apurtu dute: “Ispiluaren aurrean jarri eta begiratuak izatetik begiratzera pasatu dira, euren izaeraren jabe eginez, kontzientzia hartuz, jasotako diskurtso eta errepresentazioak deseraikiz” (Alvarez, 2014: 92). Eleberri honetan ere hala da eta Sarriugartek aurkeztutako pertsonaia emakume ahaldunduaren irudia ematen du.

Botere harremanen gaia eleberriaren gai nagusia den heinean, sakon eta luze hitz egiten digu idazleak harreman sentimentalei buruz, protagonistaren egoera sentimentaletik abiatuz. Hori abiapuntutzat hartuz, emakume eta gizonen arteko botere harremanak kritikatzeko dituzte, baita sozialki harreman sentimental egonkor bat izateak duen garrantzia gaitzetsi ere.

Z-k alde egin duela deskubritzen duenean, protagonistak pentsatzen duen lehenengo gauzetariko bat da ea bere inguruko jendeak zer pentsatuko ote duen: “Zer esan behar diet nik orain nire epaile guztiei, nire juje zorrotzei: gurasoei, kuadrillakoei, herriko besteei; zer aitortu behar diet, atzera itzuli naizela singletasunera” (9). Horrela kritikatzeko du gizartean bikotea edukitzeko ikusten den behar hori, maitasun erromantikoak defendatzen duen “laranja erdien” teoria hori. Izan ere, abandonatua izan den momentuan horregatik arduratzeak erakusten du zer-nolako presio soziala dagoen harreman sentimentalen inguruan.

Hala ere, sexuaz askatasunez disfrutatzeko aldarrikapen bat da nobelan irakur daitekeena, bere sexualitateaz nola, norekin eta noiz disfrutatu libreki erabakitzen duen pertsonaia bat baita protagonista. Gaur egungo gazteen artean nagusi den pentsamendua

islatzen du: sexua askatasunez disfrutatzen duen belaunaldi baten aurrean kokatzen gaitu, norekin-noiz-nola erabakitzen duten gazteen aurrean eta harreman sexual esporadikoak mantentzen dituztenak inolako harreman sentimental sakonik eduki gabe. Adibidez: “Nik goian ipintzea dut gogoko, zakilera irmo igota” (31); “egiatan atzetik basa har nazatela dut nik gogoko, (...) posizio egokian jarri eta zakila zuzen sartu ahal izateko, atzamarra uzkitik barneratu ahal izateko” (31-32).

Beraz, gizartearen eredu heterosexual eta monogamoa kritikatzeko du idazleak, baina aldi berean nolabaiteko aitortze bat egin eta onartzen du askotan gizakiok joera dugula ereduari jarraitzeko, gure burua ereduaren barruan ikusteko nahia dugula. Nolabait, errazagoa delako ereduari men egitea hari kontra egitea baino.

2.3. Amatasuna

Eleberri honetan ez dira amatasunari egindako erreferentziak falta, orokorrean emakumezkoek idatzitako literaturak ohiko izaten duen bezala:

“[euskal tradizioan emakumeek idatzitako eleberrietan] oso ohikoa da (...) amona, ama eta alabaren artean sustraitutako pertsonaia egituretan antolatuak dauden hainbat genealogia proposamen topatzea” (2012: 139).

Hala ere, ez da ohikoa izan ohi den ikuspuntu batetik idatzitako iritzia (*Zergatik panpox* liburuan ageri den amatasunaren kontzeptua bezalakoa, adibidez). Ama ez den protagonista bat izateagatik edo, narratzaileak gai horren aurrean duen ikuspuntua bestelakoa da eta ama izan nahi ez duen emakumea dela ematen du aditzera. Izan ere, bere amari buruz hitz egiten duenean gogorki hitz egiten du eta “amatasun totala” (74) kontzeptua ere aipatzen du: “Ama totala dela akabatu behar dena” (74).

Eleberri honetan, beraz, amatasuna beste botere-harremanen pare kokatzen da, ama izaterakoan sortutako menpekotasuna erabatekoa (eta beraz, arriskutsua) dela defendatuz. Hau da, gizarteak emakumeari inposatutako rol bat dela ematen du aditzera eta bere protagonistaren bidez adierazten du posible dela emakume izan eta amatasunaren ikuspegi positiborik ez izatea: “jada badagoelako ororen gainetik gurtuko zaituen norbait, are, zuk ezer egin gabe ere bere bizitzaren zutarr nagusi izendatuko zaituena” (103).

VII. ONDORIOAK

Lanaren helburua *Erraiak* eleberriak zenbait alorretan euskal tradizioarekiko ikuspegi aldaketa bat suposatu duela eta bertan gorputzak eta generoak leku garrantzitsu bat betetzen dutela frogatzea izan da. Beraz, ondorioztatu dezakegu berritasunak bi motatakoak izan direla: formalak eta tematikoak.

Berritasun formaletan diskurtso askatua eta sorkuntza linguistikoa ditugu batetik. Diskurtso askatu eta erritmikoa aurkezten digu idazle elgoibartarrak, mozkortutako protagonista bat erabiliz diskurtso zoro bat islatzeko. Beraz, ez da diskurtso errealista bat, baizik eta protagonista-narratzaile hordiaren inguruan sortutako eldarnioa, inolako mugarik gabeko sorkuntza linguistiko oparoa agertzen duena.

Bestalde, berritasun formaletan oin-oharren egitura berezia ere azpimarratu behar da, gogoeta metaliterario etengabe bat proposatzen baitio irakurleari. Horien bidez, zalantzan jartzen du nondik norakoak diren errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak, Wallace idazle estatubatuarrak egin bezala. Beraz, alde horretatik eleberri apurtzailea da euskal literaturaren baitan, eleberri bakarra baita orain arte oin-oharrak diskurtso narratiboarekin batera garatu dituenak. Hala ere, kritikak oin-oharrei emandako garrantzia txikia izan da eta gehien bat eleberriaren gordintasuna aipatu da. Hori dela eta, ematen du, idazleak irakurleari gogoeta metaliterario bat proposatu nahi izan badio ere, kritikariak oin-ohar horien azalean geratu direla, eman nahi izan zaien benetako balioa ulertu gabe.

Horretaz gain, berritasun tematikoei dagokienez, gorputza eta botere-harremanen inguruko hausnarketa daukagu. Horri lotuta, esan dezakegu haustura bat markatzen duela botere-harremanen trataeran idazleak aurkezten digun protagonistaren pentsamenduetan islatuta. Izan ere, gogorki kritikatzeko harreman heterosexual monogamo tradizionalak eta inork baino gordinago aldarrikatzen du harreman sexualak askatasunez gozatzeko beharra. Baina, aldi berean, mozkorraldia igarotakoan “normala” izan eta eredu tradizional horren barruan egon nahi duen pertsona dela onartzen du eta horregatik ez du bete-betean markatzen haustura hori. Bere kontraesanek eta paradoxek humanizatu egiten dute, halako munstro axolagabe baten gisa agerri zaigun etengabeko mintzo deslotua baita pertsonaia honena.

Beraz, emakumeek idatzitako lanetako joera nagusiari jarraitzen dion eleberria dela ikusi dugu, oro har tradizionalki “emakumeen literatura” deitu izan den horren hariari jarraitzen diola.

Amaitzeko, aipatzekoa iruditzen zaigu lan honen azterketa sakonik egin ez bada ere orain arte, eleberriaren oihartzuna hain handia izanda, bidezko dirudiela bere inguruko hausnarketa egitea eta bere irakurleen interesaz itauntzea. Horregatik, espero dugu honako hau etorkizuneko azterketa sakonago baterako lehenengo pausoa izatea.

VIII. BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J. (2014), “Sexuari buruzko ikuspegi gordinaren atzean badago aldarri bat”, *Gaur8*, Donostia: Astero.

ALTONAGA, K., EZKERRA, E., GALARRAGA, A., ITURBE, J. eta OTAEGI, L. (2015), “Foroa. Azkenaldiko liburuak” in Euskaltzaindia (arg.), *Erlea*, 9, Arre: Pamiela etxea. 53-59.

ALVAREZ, A. (2014), “Gorputza eta desira euskal emakume idazle garaikideen lanetako ahots subalternoetan eta bitarteko espazio identitarioetan” in Lasarte, G. eta Alvarez, A. (arg.), *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 91-106.

ARRETXEA, L. (2014), “Igartza Saria irabazi zuen proiektutik abiatuta”, *Argia*, 2426, 2014ko abuztuaren 3a. 25, Lasarte-Oria: Antza S.A.L. 25. Interneten eskuragarri: <http://www.argia.eus/astekaria/docs/2426/azala/2426_argia.pdf> [Kontsulta eguna: 2016-06-05].

BELANE, C. (2011), “Especial realismo sucio”, *Actually Notes*, 51, 2011ko maiatza. 8-15. Interneten eskuragarri: <<http://www.actuallynotes.com/ActuallyNotes-N51.html>> [Kontsulta eguna: 2016-06-05]

BURN, S. J. (ed.) (2012), *Conversaciones con David Foster Wallace* (José Luis Amores Baena, itz.), Malaga: Pálido Fuego.

EGIA, J. (2014), “Erraien ausardia”, *Gara*. Interneten eskuragarri:

- <http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-07-28-07-00/hemeroteca_articles/erraien-ausardia?slug=erraien-ausardia> [Kontsulta eguna: 2016-06-05]
- FERRER, A (2015), “David Foster Wallace: narrador de lo absurdo de la sociedad contemporánea”, *Temas de psicoanálisis*, Barcelona: Sociedad Española de Psicoanálisis. Interneten eskuragarri:
<<http://www.temasdepsicoanalisis.org/david-foster-wallace-narrador-de-lo-absurdo-de-la-sociedad-contemporanea-2/>> [Kontsulta eguna: 2016-04-20].
- GARRO, L. (2015), “Erractus. Auhenen metrika oparoa”, *Hegats*, 53, 2015.urtea, Donostia: Euskal Idazleen Elkarte. 33-35.
- LASARTE, G. (2012), *Feminist agenda: euskal narratiba garaikidean*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MUÑOZ, J. (2012), “Zergatik, panpox” in *Zergatik panpox: gaur*, Bilbo: Bilbo Zaharra Euskaltegia, 59-76.
- OLAZIREGI, M. J. (1999), “Intimismoaz haraindi: emakumezkoen idatzitako euskal literatura”, *Oihenart*, 17, Donostia: Eusko Ikaskuntza. 4-75.
- OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA (koord.) (2013), *Euskadi eta drogak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia. Interneten eskuragarri:
<http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_ovd_euskadi_drog/eu_9060/adjuntos/Euskadi%20eta%20drogak%202012.pdf>
[Kontsulta eguna: 2016-05-24]
- SARASOLA, B. (2011), “Irati Jimenezi erantzunez”, *ZuZeu*. Interneten eskuragarri:
<<http://zuzeu.eus/kultura/irati-jimenezi-erantzunez/>> [Kontsulta eguna: 2016-06-05]
- SARRIUGARTE, D. (2014), *Erraiak*, Donostia: Elkar.
- TORRAS, M. (2014), “Gorputzaren (hitz) gako(n). Ekintza eta pentsamendurako paradigma bat” in Lasarte, G. eta Alvarez, A. (arg.), *Gorputza eta generoa. Teoria*

didaktika eta esperientziak, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 11-17.

URKULO, I. (2014-12-07), “Psikosia”, *Berría*. Interneten eskuragarri:

<<http://www.berria.eus/paperekoa/1978/045/002/2014-12-07/psikosia.htm>>

[Kontsulta eguna: 2016-05-24]